

ESTUTURA

Itziar Ugarte Irizar

OIARTZUN— Une «gozoa» bizi-tzen dabil Goiatz Labandibar idazlea (Oiartzun, Gipuzkoa, 1985). «Pozik, baina baita harrituta ere». Udazkenean kaleratu zuen bere estreinako nobela, *Bekatua* (Erein), eta, aurrez argitaratutako hiru narrazio bildumen eta poema liburuaren aldean, oihartzun handiagoa izaten ari da. Durangoko Azokan ale denak amaitu ziren, esaterako —«halakorik ez nuen espero»—, eta gaztelaniara heltzeaz da orain, Irati Iturrizaren itzulpenean. Denbora bat da Labandibarrek testua idatzi zuela, ordea —2021eko Ramiro Pinilla eleberri laburren saria irabazi zuen harekin—, eta horrek liburuari begiratzeko beste perspektiba bat eman dio orain. Bi lan berri ditu bidean.

Nolakoa da testuarekiko gaurko perspektiba hori?

Bekatua urteetako lan bat izan da niretzat. Proba modura hasi nintzen, eta ez dut jarraitutasun batez idatzi. Hasieratik irudikatu nuen hemen kontatu nahi nuena ez zela narrazio labur bat, zerbait luzeagoa baizik, baina ez nekien gai izango ote nintzen, hasteko, nire interesari eusteko. Horregatik, beste gauza batzuk idazten nituen bitartean joan naiz idazten. Baina bukatu nuen, Ramiro Pinilla lehia-keta irabazi zuen, eta kaleratzera-ko beste bi urte pasatu dira. Hala ere, ez dut urrun sentitzen testua. Orain ere idatziko nuke.

36 urteko neska bat da protagonista, Garazi; 19 urteko mutil baten ohean esnatu berritan, bere bizitza auzitan jartzen hasten da. Norabide ugartitan hedatzen da narrazioa, baina zein izan zen iturburua?

Lagun batek, bere insomnio gau baten ondoren, esan zidan horri buruz idatzi beharko nukeela —idazleonek lagunak badute gaiak

«Benetan garen baino modernoagoak garela uste dugu»

GOIATZ LABANDIBAR

Idazlea

Mutil gazte baten ohean esnatu den 36 urteko «neska arrunt bat» jarri du *'Bekatua'* bere lehen eleberriaren ardatzean. «Aje emozional» betean, bere harremanen zein belaunaldiaren inguruan gogoetatuko du protagonistak.



ANDONI CANELLADA / FOKU

proposatzeko joera hori, ez?—. Hor geratu zen, baina gerora bai ikusten dut une hori abiapuntuan: kontatu nahi nuen halako momentuetan nola aritzen den gure burua itxuraz koherentziarik ez duten gauzen artean saltoka. Horrek askatasuna ematen zidan ia edozeri buruz idazteko, eta hori ona zen, baina arriskutsua ere bai; ideia solte batzuk izan zitezkeelako, eta hori ez da narrazio bat. Azkenean, krisi existentzial edo aje emozional txiki baten kontakizuna egin dut.

Bakarrizketa bat da, baina hirugarren pertsonan kontatu duzu. Nolatan hori?

Zati bat probatu nuen lehenengo pertsonan, baina azkenean hirugarrenaren alde egin nuen, lehenengoan tonua aldatzen zelako. Askoz zigortzaileagoa bihurtzen zen, dramatikoagoa. Bazirudien Garazi ohe hartan esnatzea munduaren bukaera zela, eta ez nuen ez nik ez irakurleak epaituko zuen pertsonaia bat sortu nahi. Kontrakoa. Enpatia bilatzen nuen. Garazi edozein izan daiteke, batez ere, adin tarte batean dagoena. Uste dut lehenengo pertsonan ez zuela funtzionatuko tarteka erabili dudan ironiak ere.

***Bekatua* deitu duzu lana, eta halako batean narratzaileak zera dio: «Garaziren garaian ere bekatuak**



«Idealizaziotik deslilurara doan belaunaldi bat da, ziurrenik, liburuan erakusten dena»

«Gauza asko ditugu herentzian jasotakoak, eta bakoitzak horren barruan ditu bere bekatuak»

sexuarekin du zerikusia». Orain ere halako pisua du sexuak?

Bai. Aldatu dira gauzak —bizimoduak, sexualitatea...— baina, era berean, gaurko gizarteak ere baditu bere moralak, eta horren arabera epaitzen du. Garazik badaki egin duena berez gaizki ikusita dagoela, baina horrekin jolasten du. Uler-tu nahi du zergatik egin duen egin duena. Nire irudipena da benetan garen baino modernoagoak garena uste dugula, gizartean oro har, eta baita belaunaldi honetan ere, Garazirenean. Gauza asko ditugu herentzian jasotakoak, eta bakoitzak horren barruan ditu bere bekatuak. **Goiz horrek aukera ematen dio Garaziri pentsatzeko zer distantziatara dagoen bere desiretatik, zenbateraino eraman duten inertziek. Hor arakatu nahi zenuen?**

Garazirentzat *inpassé* une bat da. Pentsatzeko aukera bat nola bizi den, zergatik, nolakoak diren egiaz bere harremanak... Baina bera ez da oso irmoa hainbat gauzatan. Zailantziak aukera asko uzten dizkio, eta kontraesanak onartzen ditu, bereak eta besteak. Sortu izan banu pertsonaia bat oso berezia edo oso libre dene, beste bizimodu bat izan duena, edo bikote harreman libre bat duena, adibidez, irakurleak beste distantzia batetik hartuko luke. Eta nik neska arrunt bat [komatxoak egin ditu eskuekin] sortu nahi nuen.

Irakurle «arrunta» izan duzu buruan, beraz?

Bai. Uste dut bizitzan denok uste dugun baino erabaki gutxiago hartzen ditugula modu kontziente batean. Denak uzten garela, neurri oso handi batean, eramaten. Ez dakit uzten garen ala sistemak eramaten zaituen. Baina uste dut Garazik kontatzen duen zurrumbilo hori gehiengoaren errealitatea izango dela.

Garazik eta Asierrek «harreman parekide bat eraiki dutela uste dute». Sakonago begiratuz

gero, baina, ustezko oreka hori Garaziren kontrara erortzen da; oroitzean zeinek berritzen duen etxeko garbiketen taula, zeinek daraman eratzun baginala...

Publikoki hitz egiten ez diren gauzak dira. Igual asko esatea da, baina uste dut alde hori badela belaunaldi baten isla ere. Lehen-goan irakurri nuen: gizonezko bategen pixka bat eginda, nola orain artekoa baino gehiago izango den, badirudi izugarri dela. Baina balantza ez da orekatzen pixka bat eginda. Garazi horretaz ere ohar-tzen da; eta bere bizitzari begiratzeara bada, aldi berean, gizarte honi begiratzeko modu bat. Uste dut badela harremanak, ez soilik bikotekideen artekoak, zailantziak jartzeari buruzko nobela bat ere.

Garaziren belaunaldia ez da konformista samar erretratatzen? Haren helburu bakarra «funtzionario izatea» dela aipatzen du narratzaileak, adibidez. Idealizaziotik deslilurara doan belaunaldi bat da, ziurrenik, erakusten dena. Eta uste dut Garazirena badela hortik asko daukan belaunaldi bat.

Amatasunak ere badu lekua kontakizunean, eta ardatzean jarri zenuen gaia Amez aurreko narrazio liburuan ere (2022). Zer eman dizu azkenaldian hartaz pentsatzeko?

Une batean bi liburuen idazketek bat egin zuten. Baina uste dut batez ere hemen agertu behar zen gai bat zela, pertsonaia sinesgarri egiten duelako. 36 urteko emakume bat, urteetako bikote harreman heterosexual bat duena, ez bada ama, gaur, Euskal Herrian, behin baino gehiagotan galdetuko diote zergatik, edo, zuzenean, noizko.

2013an kaleratu zenuen lehen liburua. Nola joan da ordutik honako bidea?

Hamar urte hauetan gauza asko ikasi ditut; uste dut hobeto idazten dudala, eta horretarako aurreko lan guztiak beharrezkoak izan direla. *Geltokiak edo helduta entzuteko abestiak*-eko esperientzia [idazlearen lehen lana] gogorra izan zen; ondorengoak ezberdin bizi izan ditut. Oso txiki sentitzen naiz plaza horretan oraindik, baina gustuko dudana plaza bat da.

Interes literarioak aldatu zaizkizu?

Idazle gisa ala irakurle gisa?

Idazle bezala, adibidez.

Ez nuke esango. Idaztera gauza txikiak eramaten naute askotan. Hemen eta gaur horretatik abiatuta idazten dut, ez naiz oso bestelako munduetara joaten. Eta irakurtzen ditudan beste lanek ere eramaten naute burua martxan jartzera eta nire proiektu propioak bideratzera. Irakurle gisa, beti izan naiz oso irekia, eta hala naiz oraindik ere. ●



Etxanobe (eskuean), Bizkaiko Batzar Nagusietan, atzo. BFA

Etxanobek dio aurrera doala Urdaibain museoa egiteko proiektua

→ Bizkaiko ahal-dun nagusiak onartu du museoaren bideragarritasuna oraindik ez dagoela bermatuta.

→ Batzar Nagusietan azalpenak eman ditu proiektuari buruz, eta «urratsak egiten» ari direla esan.

Iñigo Astiz

Airean beste kiribil bat gehiago eman du Urdaibaiko Guggenheim museoaren egoerari buruzko albisteak. Proiektuaren bideragarritasuna aztertze-ko etenaldi bat egingo zutela iragarri zuen Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakariak duela aste batzuk, Gasteizen, baina ez dira gutxi izan geroztik ordezkari politikoei kontrako norabidean egindako adierazpenak. Geldialdirik bazela ere ukatu egin zuen Ixaso Atutxa EAJren Bizkaia Buru Batzarreko lehendakariak, esaterako, eta, oraingoan, Elixabete Etxanobe Bizkaiko ahal-dun nagusiak baieztatu du proiektuak «urratsak egiten» jarraitzen duela, «proiektua garatzeko estrategia ez delako aldatu». Udan aurrerapauso horiek «ikusgai» izango diren esperantza azaldu du.

Elkarrekin Bizkaia taldeak eskatuta eman ditu Etxanobek gaiari buruzko azalpenak Bizkaiko Batzar Nagusietan. Baina, proiektuari babesa azaldu arren, onartu du «lan asko» dagoela oraindik egiteko, museoa «bideragarria» izango dela ziurtatu ahal izan arte.

Edonola ere, tramite «luze» eta «konplexuak» geratzen dira oraindik, Etxanobek azaldu duenez. «Hurrengo urteetan aldundiak lanean jarraituko du proiektu hau gauza dadin». Iragarri duenez, hirigintza planak moldatuko dituzte, lur-aren kutsadura garbituko dute, eta Murueta ontziola biosfera erreserbatik kanpora eraman. Esan du finantzaketa ere bilatuko dutela. «Lortzen ez badugu, proiektua ezingo da egin».

Oposizioaren kritikak

Horrez gainera, azken erabakia Bilboko Guggenheim Museoko Patronatuari dagokiola ere gaineratu du —Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Solomon R. Guggenheim museoak osatzen dute—. Oposizioak galdetuta, Etxanobek ukatu egin du desadostasunik dagoenik Guggenheim museo-ko patronatu-ko kide diren euskal erakunde-arte-arte. Eta Busturialdea biziberritzeko erakunde arteko plan zabalagoaren barruan sartu du Etxanobek Guggenheim museoaren proiektua.

Oposizioa ados azaldu da Busturialdea biziberritu beharrarekin, baina eskualdeko herritarren iritzia kontuan hartuko duen «prozesu demokratiko bat» egin dadila eskatu du Iker Casanova EH Bildu koalizio-ko kideak.

Elkarrekin Bizkaia talde-ko Eneritz Madariagak, berriz, proiektua bertan behera uzteko eskatu du. Haren hitzetan, «bateraezina» delako ingurumena hobetzeko asmoekin. «Guggenheimek behar du handitze hori, ez Urdaibaik». Eta PP alderdiko ordezkariak argitasuna eskatu die arduradunei.

Jaurlaritzarik gabeko bisita

El Correo egunkariak zabaldu duenez, Urdaibaiko museoa eraiki nahi duten inguruan izan dira Solomon R. Guggenheim fundazio-ko eta Bizkaiko Aldundiko ordezkariak asteburuan. Bisita ez zen ofiziala, eta ez zegoen iragarrita. Baina, egunkariaren arabera, Eusko Jaurlaritzako ordezkari-ek ez zuten haren berririk.

Aldiz, bertan izan ziren Bilboko Guggenheim museoaren patronatu-ko kide diren Etxanobe eta museo-ko zuzendari Juan Ignacio Bidarte. Eta haiekin izan zen Marlet Westermann ere; ekainean, Solomon R. Guggenheim mu-seoan egingo duten zuzendaritza aldaketaren ostean, fundazio-ko hurrengo lehendakari izango da Westermann. Museoa eraikitze-ko den ingurua ezagut zezan egin zuten bisita, egunkariak azaldu duenez. ●